

Almanak Uskara

edo

Ziberouko Egunaria

1888 bissisto ourtheko

Jinkoua eta Herria !
Zuhurtarzuna eta lana !
Eta bizi bethi Uskalduna !
Iao ! Iao !
I-a-a-a-a-o-o-o-o-o-o !

SALTZEN DA

Maoulen
DETCHERRY Ban

Atharratzen
CAUTURE Ban

Prezioua : BI SOS

OURTHEKO SASOUAK :

BEDATZIA hasten da martchouaren	20 ^{an} .
UDA hasten da aramaiatzaren	21 ^{an} .
LARRAZKENA hasten da burullaren	23 ^{an} .
NEGIA hasten da abentiaren	21 ^{an} .

OURTHEKO BESTA KHANBIAKORRAK :

SETUAJESIMO, *ourtharilaren* 29^{an}; — HAUSTE, *baranthal-*
laren 15^{an}; — BAZKO, *aphirilaren* 1^{an}; — ERROGAZIONIAK,
maiatzaren 7ⁿ, 8ⁿ eta 9^{an}; — SALBATORE, *maiatzaren* 10^{an}; —
 PHENTEKOSTE, *maiatzaren* 20^{an}; — BESTABERRI, *maiatza-*
ren, 31^{an}; — ABENTUKO LEHEN IGANTIA, *abentiaren*, 2^{an}.

LAOUR THENPORAK :

Baranthallaren 22 ⁿ , 24 ⁿ eta 25 ⁿ .	{	Burullaren 19 ⁿ , 21 ⁿ eta 22 ⁿ .
Maiatzaren 23 ⁿ , 25 ⁿ eta 26 ⁿ .		Abentiaren 19 ⁿ , 21 ⁿ eta 22 ⁿ .

EKHI ETA ARGIZAGI ULHUNTZIAK :

Argizagi ulhuntze ossoua, *ourtharilaren* 28^{an}; ikhoussiko
 da Frantzian eta iragnen aratseko 8^{or} eta erdiik goizanko 2^{or}
 artio. — Ekhi ulhuntze phartezkouak *baranth.* 11ⁿ *uztailaren* 23ⁿ
 eta *agorrilaren* 7ⁿ; eztira ikhoussiko Frantzian. — Argizagi
 ulhuntze ossoua *uztailaren* 23^{an}; pharte ikhoussiren da Frantzian
 goizanko 3ⁿ eta 8ⁿ artian.



OURTHARILA

Egunak luzatzen dira oren batez.




- Ⓐ a. l. 6ⁿ, goizeko 11^{or} eta 52ⁿ in.
 Ⓑ a. b. 13ⁿ, goizeko 8^{or} eta 48^{min}.
 Ⓒ l. l. 21ⁿ, goizeko 4^{or} eta 59^{min}.
 Ⓓ a. b. 28ⁿ, aratseko 11^{or} eta 28^{min}.

BARANTHALLA

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdiz.



- Ⓐ a. l. 4ⁿ, aratseko 7^{or} eta 35^{min}.
 Ⓑ a. b. 12ⁿ, gaiherdi eta 2^{min}.
 Ⓒ l. l. 20ⁿ, goizeko 2^{or} eta 9^{min}.
 Ⓓ a. b. 27ⁿ, gaiherdi eta 7^{min}.



1	Ig. OURTHATSE	ZIRKONZISION.
2	Astelehen.	s. Makaire.
3	Asteharte.	sa Jenevieva.
4	Astizken.	sa Fausta.
5	Ostegun.	sa Amelia.
6	Ostirale.	APHARIZIO.
7	Neskanegun.	sa Melania.
8	IGANTE.	s. Luzien.
9	Astelehen.	s. Julien.
10	Asteharte.	s. Marzien.
11	Astizken.	s. Teodoso.
12	Ostegun.	sa Taziena.
13	Ostirale.	s. Leonze.
14	Neskanegun.	s. Hilera.
15	IGANTE.	s. Paule, erm.
16	Astelehen.	s. Marzel.
17	Asteharte.	s. Antoni, er.
18	Astizken.	J. Phetiriren Jartia
19	Ostegun.	s. Kanut.
20	Ostirale.	s. Fabien eta Sebast.
21	Neskanegun.	sa Agnes.
22	IGANTE.	s. Vizente.
23	Astelehen.	s. Remoun.
24	Asteharte.	s. Timote.
25	Astizken.	J. Pauleren k.
26	Ostegun.	s. Polikarpe.
27	Ostirale.	s. Vitalien.
28	Neskanegun.	J. Johane Kris.
29	Ig. Setuajes.	s. Franzes Sal.
30	Astelehen.	sa Martina.
31	Asteharte.	s. Pierra Nol.

1	Astizken.	s. Inazio, m.
2	Ostegun.	KHANDERALLU
3	Ostirale.	s. Blasi.
4	Neskanegun.	sa Jana, Val.
5	Ig. Selsajes.	sa Agata.
6	Astelehen.	sa Dorotea.
7	Asteharte.	s. Romuald.
8	Astizken.	J. Johane M.
9	Ostegun.	sa Apolonia.
10	Ostirale.	sa Eskolaztika.
11	Neskanegun.	s. Antero.
12	Ig. Kinkajes.	s. Tito.
13	Astelehen.	s. Jilbert.
14	Asteharte.	s. Valentin.
15	Astizken.	HAUSTE.
16	Ostegun.	sa Juliana.
17	Ostirale.	s. Silvin.
18	Neskanegun.	s. Flavien.
19	IGANTE.	GOROZUM. 1 ^a .
20	Astelehen.	s. Eucher.
21	Asteharte.	s. Pepin.
22	Astiz. IV Th.	J. Phetir. Ant. Jart.
23	Ostegun.	s. Dosithe.
24	Ostirale IV T.	s. Robert.
25	Neskanegun IVT.	s. MATHIAS, ap.
26	IGANTE.	Gorozum. 2 ^a .
27	Astelehen.	sa Onorina.
28	Asteharte.	s. Rufin.
29	Astizken.	sa Beatriz.



MARTCHOUA edo OSTAROUA

APHIRILA edo JORRAILA


Egunak luzatzen dira 2 orenez.

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdiz.



- ☿ a. l. 5ⁿ, goizeko 3^{or} eta 35^{min}.
 Ⓢ a. b. 12ⁿ, aratseko 4^{or} eta erditan.
 ♃ l. l. 20ⁿ, aratseko 8^{or} eta 53^{min}.
 ☿ a. b. 27ⁿ, aratseko 10^{or} eta 17^{min}.

- ☿ a. l. 3ⁿ, aratzeko 1^{or} eta 51^{min}.
 Ⓢ a. b. 11ⁿ, goizeko 9^{or} eta 17^{min}.
 ♃ l. l. 19ⁿ, aratseko 2^{min}.
 ☿ a. b. 26ⁿ, goizeko 6^{or} eta 31^{min}.



- | | |
|----------------|---------------------------|
| 1 Ostegun. | s LÉON, Baion. |
| 2 Ostirale. | s. Sinplize. |
| 3 Neskanegun. | sa Kunegonda. |
| 4 IGANTE. | Gorozum. 3 ^a . |
| 5 Astelehen. | s. Teofile. |
| 6 Asteharte. | sa Koleta. |
| 7 Astizken. | s. Tomas Akin |
| 8 Ostegun. | J. Joh. Ospit. |
| 9 Ostirale. | sa Franesa. |
| 10 Neskanegun. | 40 Mártirak. |
| 11 IGANTE. | Gorozum. 4 ^a . |
| 12 Astelehen. | s. Gregori handia |
| 13 Asteharte. | sa Ufrazia. |
| 14 Astizken. | sa Matilda. |
| 15 Ostegun. | s. Zakaria. |
| 16 Ostirale. | s. Abraham. |
| 17 Neskanegun. | s. Patrizio. |
| 18 IGANTE. | J K. PASSIONIA |
| 19 Astelehen. | s. JOSEPH. |
| 20 Asteharte. | s. Joakim. |
| 21 Astizken. | s. Benoît. |
| 22 Ostegun. | sa Riktruda, usk. |
| 23 Ostirale. | s. Viktorien. |
| 24 Neskanegun. | sa Berta. |
| 25 IGANTE. | ERRAMU. |
| 26 Astelehen. | s. Braulio. |
| 27 Asteharte. | s. Aletsandre. |
| 28 Astizken. | s. Gontran. |
| 29 Ostegun. | Osteg. saintu. |
| 30 Ostirale. | Ostir. saintu. |
| 31 Neskanegun. | Nesk. saintu. |

- | | |
|----------------|--------------------|
| 1 IGANTE. | BAZKO. |
| 2 Astelehen. | s. Franzes P. |
| 3 Asteharte. | s. Richar. |
| 4 Astizken. | s. Isidoro, dot. |
| 5 Ostegun. | s. Vizente Fer. |
| 6 Ostirale. | s. Prudenizio. |
| 7 Neskanegun. | s. Zeleztin. |
| 8 IGANTE. | Quasimodo. |
| 9 Astelehen. | Anoutziacionia. |
| 10 Asteharte. | s. Fulbert. |
| 11 Astizken. | s. Leon handia |
| 12 Ostegun. | s. Jule. |
| 13 Ostirale. | sa Hermenej. |
| 14 Neskanegun. | s. Lambert. |
| 15 IGANTE. | sa Anaztazia. |
| 16 Astelehen. | sa Engrazia. |
| 17 Asteharte. | s. Anizet. |
| 18 Astizken. | s. Elutero. |
| 19 Ostegun. | s. Leon IX. |
| 20 Ostirale. | s. Teotimo. |
| 21 Neskanegun. | s. Anzelmo. |
| 22 IGANTE. | s. Soler eta Kaio. |
| 23 Astelehen. | s. Jeorji. |
| 24 Asteharte. | s. Fidel. |
| 25 Astizken. | s. MARK, Eb. |
| 26 Ostegun. | s. Clet eta Mar. |
| 27 Ostirale. | s. Zerazio. |
| 28 Neskanegun. | J. Paule, Khur. |
| 29 IGANTE. | s. Piarres, mart. |
| 30 Astelehen. | sa Katalina, s. |

USKALDUNAK

Itzali nahi ezten populubat.

USKAL Herria khanbiatzen ari da egunetik eguniala. Zounbait denbora hountan, eskola, helturik bassa bazteretara drano, ari da goure leheneko zaharren lengouajaren galerazen. Ez herribat ere, noun, eskolati landa, haourrek ezteizien erraiten egun houn frantzesez. Egunbatez, nourbaitek erraiten zeitan igaran zela Maouleko lehen lehen kharrikan, ezpeitzian entzun ez eta hitzbat uskaraz; bai aldiz berrian biarnesez, eta haborotan frantzesez.

Lehen kolpu gaichtoua Uskal Herriari eman dero Ereboluzioniak. Idoki tu goure kostuma zaharrak, zouñ beitziren gouretako eta bestetakouentako, khountu, ez gaintitzeko chediak Geroztik, jouan jinkak chiago; haieki. itchassouaren bestaldialat jouaitia, eta eskola: hoietan orotan trebes, goure kostumak, goure bizitzeko gisa, goure lengouajia, oro airian dia orozbatkoz jouaiteko.

Diala hogeibat ourthe, Biarnoko gizoun jakintsubatek, gasetabatetan erran du: « *Uskaldunak, genero badouen-* »
« *bat*, zer gatik galtzera douen Uskal Herria, sarri boti »
« datekiala Frantziareki eta Españaareki gisa oroz.

« Leheneko Uskaldunak eztziren oraikouak bezalako; »
« badouatza karzeratzez oraikouak. Hegiaz alde hounta- »
« kouak erabilten tu Parisek; alde hartakouak, Madril- »
« lak. Bestetakoueki hara hounaketan, mintzatzen dia »
« erdara linbatetan; sal erospen eta tratietan hañ die »
« khanbio hartu, noun beita lekhu galthatzeko eia, lehen »
« Eropako beste genero orotarik bai hastapenez, bai »
« mihiduraz, bai bizi gisaz, liferent zien gizoun hetarik »
« direnez egunko Uskaldunak. Erran ahal leite, khountu. »
« Frantzesak direla, Españaoulak direla. Eta haregatik »
« mundian ezta nazionebat erran dirouanik aourhide dela

« Uskaldunareki, 'zouñen hatsarria gorderik beitagó
« ezin ezagutuz....

« Hegiaz alde hountakouak, lehenekouak bezala,
« batzarri ederreko dira; bere buriak, bere egongiak
« ahalkechun tie, erdots eta argi gaizak; bena galdu
« tienian sortzapenak eman zuzenak, *Fuerosak*, galdu
« die algaren artian izateko bere buriak zien phakutar-
« zun gora. Berek bere legen egiteko zuzenak galdu
« zutienian, bere gisa bizitzeti baratu zien. Behin gibelt,
« gero aitzina, emeki emeki agitzen dira leheneko
« herritar Biarnesak eta Gaskouak uduri; hoiek aldiz
« ordukoz hanitch khanbiaturik.....

« Uskaldunen khorpitzeko ekhardurak erakousten
« du kasta bestiak ez bezalakobat dela; bena haien
« mintzatziak orano haboro, hen hastapena eta algareki
« bizitzia bakhoitcha dela, beste ororen artetik kanpo...
« *G. de Humboldtek* dio uskara, mihidura mirakulutsu
« hori, mundian bakhoitcha dela, Eropa ekhisargoua-
« kouan diren orotan liferent dena. *Humbolt* etarik
« landa, hañ beste ikherka izan dira Frantzian eta Ale-
« manian, noun uskaraz eginik izan diren izkiribiek
« betha ahal beiliroie lib^rutegibat. Eroumako eta Gre-
« ziako izkiribazalek, diala bi mila ourthe eta haboro,
« mintzatu izan dira *Iberez*. *Strabonek* erraiten du bere
« denborako Iberek edo Uskaldunek bazutiela istoriak
« eta legiak bersuz edo neurthitzez izkiribaturik....

« Uskaldunek orai, bere mendietan, ez tie hanbat
« khountatzen ahal, mirakuluz kanpo, luzaz izatia bere
« lengouajian, bere zahar enian. Eroumanouetarik
« landa izan dien generouek ez tie egin maskirik Uskal-
« dunari; ere hen denborako ber chediak eta bazterrak
« dutu. Zergatik? Zielakoz Uskaldunak libre bere
« bortietan, ihouren manupeti kanpo, beldur gabe, eta
« bere aizouak uzten phaoussian..... Egun Uskalduna-
« ren lengouajiri dira dessidiak : haren gal erazteko
« koblaturik dira lege egiliak, erabil erazliak, ofizioiak,
« tratiak eta zer nahi beita zotuku mundiaren artian.

« Española eta Frantzesa ezia ari ez bortchakaz sart-
« zera Uskaldunen lekhian : uskara mintzatzen dien
« herriaren bazterak ohikouak dira ; eta haregatik uskara
« ari da galtzen. Nahasten da bazteretikouen hitzeki,
« uskaraeki buru buztanka dieneki ; galtzen utzuldura
« chotilak, eta heben egoitera bestetarik jiten dienen
« mintzajiareki ohatzen. Bere bertarzuna galtzen du, eta
« ari da murdukatzen. Goiz edo berant, Uskal Herria,
« hegiaz bi aldetakoua, arrallaturikburduñ bidez, (tresna
« uskararen galerazliak), lekhukouentako bezañ, beste-
« tarik jinentako date..... Mundiaren artetik, jenteteli
« berhezi baten, lehen beno lehen galerazteko, Uskal-
« dunak saldokaz badouatza, batak Amerikalat, bestiak
« hiri handietat, Bordeleat, Pariséat ; eta uzten lekhiak
« hutsik Frantzesen, Biarnesen eta Españoulentako....

« Uskaldunen bestak, jokiak eta solassak badirade
« orano doidoia ; bena zer khanbioua oraikoz ! Eta
« kanpoti jilek eztutie edirenen ohi bezañ alagera eta
« gisako. Lengouajiareki galtzen da bizitzeko mota ; eta
« hegiaz alde haraintian edo hounaitian diren Uskal-
« dunak ari dira Españoultzen edo Frantzesten.....

« *Boti jarlez oraiko bizizaleki, ulzirik lehen zutien*
« *bizitzeko gisak, Uskaldunek galduren tie aitzineko iza-*
« *tiaren orhiltmentchak, bere sortzapenaren bakanlarzu-*
« *na, bere lengouaje edo mihidura ederra, eta, behar*
« *bada, bere izena ere..... »*

Diala hogeí ourthe erranik izan dien gaiza hoiek, eztirade gutiago egia egun. Orduetik houna zer khanbiouak ! Nouiz nahi ikhousten tugu Uskaldunak hebetik jouaiten, eta bestetakouak hen ordari jiten.

Ordu da iratzar gitian, ezpatugu nahi ikhoussi heltzen orai erranik izan dien horik. Erakousten deikie zouñ gaitz gudukatu behar den, korajereki eta iraitereki. Hanitch gaiza, hatik, jouan dira ezpeitutugu ikhoussiren haboro !

Hantche hortche nekez edirenen da bigahirour gizoun zahar, zaragolla moutcheki eta bilho luchiareki ; utzirik

goure bounet gaztaña kolorekoua, harturik da bounet ourdina, bluia. Emazten burukouak orai uduri du Frantziako bouneta. — Eztugu goure kostuma zaharra, besten manupeti goure begiraria, ez eta Lechtarreko khortia noun chuchentzen beitziren Ziberoutarren desbardindurak..... Horiek orok lekhu egin die mouda kanpoti jin elibati.

Pelotaka ere, ez eror bai eror da. Lechtarreko plazala ezta hanbat agertzen pelotakari espāñoul baizi. Arrabotian eta botu luzian bekhan dira arizaliak. Han hartzen du gañia belharak, beharagorik ediren erhaoutsa. Bena Maouletarrek badie araouz beste traholarik.

Etcheki dezagun pelotaka, eta par ditzagun goure aourhide Laphourtarak, behinere beno haboro ari dienak. Begira dezagun ere lengouaje ederra; eta ez utzi heben gañia hartzera kanpoti jiten dien mihidurer. Begira goure leheneko hitzak eta mintzatzeko gisa.

Uskara da munduko mihidurarik zaharrena. Goure aitek begiratu die eta gouri igaranerazi goure oundotik jinen diener igaraneraz dezagun chahu eta nahastekarik gabe.

Indarka hanitch eta borthitzik egiten die; guduکا handi da : bena buhurturen gira. Hortako begiraturen dugu Erelijonia, goure lengouajiaren, kountu, habe bakhoitza. Ezkitian jarraiki lur laneko aita elibati, eskusa gabe nahi beitie haien haourek katichima ikhas dezen frantzesez : ikhas eraziren deregū uskaraz. Behatuko gira igantez egiten diren uskara phederikier. Nouizian behin bortchatu bagira biarnesez edo frantzeses mintzatzera, Uskaldunen artian, bethi uskaraz. (Bretouek frantzés mintzazalebati ihardetsi beno lehen zer nahi egin liroie.)

Gaseta bat bada Uskaldunen Erelijioniaren, eta aitati semiala igaran dien gaizen althe. Izena du : ESKUALDUNA. Eta da, erran zahararen araou, uskaldun eta khiristi houn. Ziberouak ere ukhenen du, denbora luze gabe, bere gaseta : ZIBEROUTARRA.

Maouleko kolejioko eskolieren jelkhitzeko egunian, Presidentak, (Ziberouko eretoretarik bat da) erraiten zian :

« Kantabre ez hezien semiak gira : gora buria !
« Gibel, khupusten, chalbaltzen dienak, paratzeko
« goure gaiza zaharak, aitati semiala jinak ezdeustu edo
« khanbiatu nahi dutiener ! Gibel uskara ahutzerazi edo
« arnegatu nahi dienak ! Gibel ezachol edo zerephel
« direnak ! Diela ouhouratu, bere buriak uskaldun
« erakousten dutienak. Lehen bere izate ossouaz hañ
« phaku zien Uskaldunen althia etchekei dezagun. Era-
« koutsu behar dienen urhatsian girenak, gochoreki
« uskaraz mintza gitian ahalik eta ardurena, orotan
« gainti, Uskaldunak gihaour girenian : uskaraz egun
« houn algarri ; uskaraz izkiriba, eta goure mihidura
« ederraren eraikiteko erantzunik izanen dienak goure
« ahalian lagunt ditzagun. »

Eta erran ahal ukhenen dugu : USKALDUNA, *orozbekoz itzali nahi eztena.*



BOTZKAZ

IGARAN baranthallan, departamentuko haitazaliak bildurik izan dira botz emaiteko, M. Destandean zenaren ordiari. Ziberouak, 1885^{an} haitu hobenak eginik, berheziki Atharratzeko kantounadan, eman du, azken aldian, hanitchez haboro botz Erepublikari.

Nahi dugu erran zerbait botzkaz, zouñ lan ezpeita tchipienetarik, hortarik jin behar dianarentako. — Erepublikanouek alegatu die bethi botz emaitia eztela net harainti, eztzaiola hanitch jouaiten kountzentziari ; eta hori, bai ezi, erelijioniak eztiala deus ikhoustekorik lureko goberniareki. Hola mintzo dira, berek badakie zergatik ; bena eztira chuchenian hola argudiatzez.

Erelijionia erakoutsirik izan zaizienian, ikhassi duzie bat bederak, erran eta egin dukianez oroz judizioneko egunian behar dukiala khountu eman. Eta egitatiak jujaturik dirate, ez ber bera, beraietan, bena orano haien ondoretarik.

Ber houla date botzkaz.

Zerda botzka deputatukan ? Bere zuzenen ororen emaitia haitatzen dianari, harek khanberan egiteko, emailia bera han baliz bezala. Legebaten abioua ezarten deizie aitzinian ; ikhouston duzu, dela houn edo gaichto, eta hantik erran ziniro nahi duzula edo eztuzula nahi.

Oraiko denboran, botzkariari galthatzen zaio haou berbera, *nour haitatzen dian deputatu*. Arren baziozu haitia houn egin dezan. Hamar ourthe hoietan haitatziak gaichki eginik izanez, khanberan izan da tzarrapalan-keria eta erelijioniaren hountreko legiak. Horietan, lehen ogena deputatienna da ; bena bai gero, haien igor-lena, botzkariarena. Botz emailek orok hori enthelega baleze, botzka hobeki eginik lizate.

*Kountzentziatz arren behar da eman botza, erelijionia-
ren allhe ezaguturik diener, eta aitzinetik hala agertu
diener.* Eta halakouak edirenen tuzie chourietan, eta ez hetan baizik.

Bena, diozu , badela erepublikano erelijioniaren althe direnak. — Sinhesten duzia, gaichoua ? Bai, bai, hori bera duzu haien errana eta araerrana. Eztuzu, ez, Uskal Herrian entzunen erelijioniaren kountre mintzatzen deputatu izan nahi denbat, kanpoko biltzarrenetan ; bena bai hati, bilkhura ttipi elibatetan noun beitaikie eztiela entzunik laborari gisakouez : beitaikie ountsa elitzakela ukhen botzak. Bena haien elhiak eta egitatiak ohatzen dira algareki ? Bere erraniala hourak bera dira erelijio- niaren althe eta, egiaz. Eta diroie orano aspaldian eztza-tekiala erelijionerik, errepublikanouek ezpalie begiratu althe jartez. (Batek erran du.)

Gizoun ohilttobat bada botzaren galthatzen, eta aran- kuratzen bazizaitzo noula ari izan den aitzineti, ukhatuko

deizu, segur bezala sinhetsirik datekiala bere erranian, edo bestela beitaki gasetak eztutiela irakourten hari mintzo dienek. Aldiz, saihetsetik emanen dizu arapostia, balinbadu kherementa zerbait ; galtha ezozu, hola legia-rentako, egitian bai erran diane; ihardetsiren zutu, erelijioniaz murduruku eder zerbait bouhatzez. Eta bardin phuntia jiten datekianian, chahu dukezu ollaoute-giko haga bezala.

Ohart duzie M. Renaud zena. Arren gizoun houra, bere erranen araou, erelijioniaren althekouetarik zen. Bere herrian bazouen mezialat igante oroz eta, dioienaz, astegunerez nouzian behin. Senadoretu zenian, lege gaichtouen ororen bai erran zian. Eta Parisen zenian, (berak erran ukhen deit) ezizian aztala sartzen Elizan. Areta ezta eliza mentsik Parisen. Hori zer erran nahi da? M. Renaud erepublikano zela.

Erran deizie, eta hanitcheke behar ukhen die sinhetsi : « *Erepublikan bagira, eta erepublika azkar, dudarik gabe, Jinkouak hola nahi beitu.* » Eztuzu itchoussi. Ah! Jinkouak nahi beitu? Bena ohart baduzu zer ikhassi duzun katichiman, badakizu Jinkouak eztiala nahi gaichkia ihoulaz ere, eta haregatik, uzten dila zounbait aldiz egitera. Aithortu behar da heben erepublika dugula, eztugulakoz merechi zerbait hoberik, eta iraiten badu orano, botzkariek diela irañerazten izate haou. Bena ezta erran nahi, dugulakoz, irañ erazi behar dila bethikoz. Goure eginbidia da aldiz, gobernu gaichtobat delakoz, hountarik gabetzia, lehen bai lehen, edo gutietik, hastiogarri den gobernia egiten dien gizounetarik.

Arren entzuten duzienian erepublikanobal errailen erelijioniaren althe dela,.... ez sinhets, gezurra dio.


Hor da bai M. Vignancour, hañ ountsa laguntu duziena igorten khanberalat. Zer hitz emaiten zeizien erelijionientako? Izanen zela harentiar. Orhit niz, khountu hitzez hitz, zer zicuan Maoulen botzka aitzinian : « Ihourk eztu nik beno haboro ouhouratzen Erelijionia. » Eta lephoua ere orkheiala ezari zukien,

nahi bada eztzian erran, Erelijioniaren althe. Eta hare-gatik botz eman du aphezgeien soldado jouaiteko. Aldiz 1881^{ik} 1885 artio, lehen deputatu denboran, botz eman du, edo erelijioniaren kountre, edo ez ja althe. — Eztia uduri nourbait erraiten bestebati : « Maite zutut hanitch eta ouhouratzen zutut, » eta gero, berhoundo makhila bizkareti behera emaiten ?


Beste alde, Erelijioniaren kountreko legiak oro izan dira abiatuak eta eginik erepublikano gorriez eta nabarrez ; eta, Erelijioniari buhurtziaz da aiphu, orobat dirade.

Orai badakizie arren Erepublikanouak zer diren erelijioniarentako.

Zounbait denboraren burian, deithurik ziateke herriko kountselliaen berritzera. Beharko dira haitatu erelijione dien gizounak ez ber bera elhez, bena bai feitez ; hortan borogantchak eman dutienak, ohart zite, kountselliaen hartzen direla senadoren izentazaliak. Eta hartakoz utzi bazterrialat Erepublikanouak. Indarkaturen dira majoriaren nahiz ; bena jakin erazien derezie, behin bai hatzaman zutiela, bena berriz ez.



BI KHOUNTU ZAHAR



Erkula gaskoubat.

IZAN da M. de Bassabat deitzen 1681 altian, Eregeren zaldizko gizounbat, indar phouska bateki, ukharraian haborouenik. Egun batez zer egin zian, houna.

Manitchal ferrazalebaten boutigan sarthu zen, tchos-tatzera, alegia zamaria ferraerazi behar ziala, eta so burduña obratu bati erran zian : « Arotza, uduri zitak hire burduña chabor dela. » — « Munduko lehena duzu, eta, » manitchalak. Deus ezpaliz bezala, har burduña, eta bi

eskiez, kask! haousten beirina bezala. « Hu! haou zer da? » Belhagile izan behar ziala entzun beitzeron ahapeti elhe zerbait erraiten. Jaounak nahi zeronez egin ferrabat zamariarentako. Baietz; lanari jarten da; eta burduña unkuduti suiala utzultzen dian artian, zuhatzaz M. de Bassabatek unkudia eta sotoua kapapian gordatzen tu: laour gizounek zotuka ahala beitzien. Burduña gorria arotzak unkudialat zalhe; bena noun zen unkudia bere sotouareki? « Zer da arren haou? noureki niz? » Bessapian gorderik unkudia M. de Bassabatek erraiten beitero debu char batek, tchaminian behera jin eta erouan dila, ikhoussi dila, baduzu bai ordian segurtatzen belhagile bateki dela. Jaounak pietatez erakousten deitzo erran behar dutian hitz elibat mantetch peti gora debu charari unkudiaren utzulerazteko. Manitchala elhe poulousten mastekatzen ari den artian, M. de Bassabatek bere lekhian sotoua eta unkhudia ezarten deitzo.



Zounbat zankho dien khurlouek.

Italian Jaoun bat, messire Konrard, adichkidebatek igorrorik khurlobat ukhen beitzian, manhatu zian kozinera presta lezan barazkaitako. Berhala mania. Eta, edo halako guti zelakoz, edo eztzialakoz tcheste behinere, prestazaliari gogouala jiten zaio behar dila bere-tako begiratu azpietarik bata. Baita bai; eta egiten du.

Hañ chuchen baziren han barazkalzale saldobat egun hartan. Mahañiala zenian khurloua, haoudela azpibata ments. Ikhoussi zienian hola, naoussiak kozinerari: « Eta beste azpia noun da? » Gezurti arrallatu beitzen mañata, bekhokereki erraiten dero khurlouek eztiala zankhobatek eta azpibat baizi. « Behadi! ouste duka eztudala ikhoussi behinere haou baizi besterik? » — « Oh! bena hola duzu, Jaouna; eta, ezpaduzu nahi sinhetsi, fida nuzu horen erakoustera khurlo bizietan. » Solaz ordian. Konrard, barazkalzale gati ezpeitzen nahi

sobera sutatu : « To! fida hizanaz geroz erakoustera orano ikhoussi ez entzun eztuguna, bihar ikhoussiren diagu; bena gero, gougou ezpaduk egiten; etzaik eroriko lurialat. Orai, abil horti. »

Biheramenian. Konrard kozinerareki badoua hartze batetara, khurlo bilgibatetara. Lehenik saldobat ikhousten du phaoussaturik, lo direnien bezala, aztapar bederatan : « Arren, Jaouna, soizu, atzoko ene errana eztenez egia. Ikhoussazu badienez zankho bedera, azpi bedera baizi. » — « Eguriok, nahi derat erakoutsi badiela bira. » Hullantu zenian khantiala hassi zen : « Hou, hou, hou! » Entzun zienian khurlouek, bigerren aztaparra phaoussa, eta hegaltaz jouan zien.

« Eta errak orai, badieia khurlouek bi azpi? » — « Bai, Jaouna. Bena atzokouari eztzunian erran hou, hou, hou! bestela khurlo horiek bezala ukhenen zitizun bi zankho eta bi azpi. » Konrarti erria ezkapi zeron, eta erran : « Abil, pharkatzen deiat, bena eztezala egin haboro. »



DUGUN HORTARIK ABOKATUBAT

ALLANDE laboraria, bihotzkatzen da. Semia Batista ari da handitzen. « Zer ofizio emanen derogu? » Abokatu baledi! Urhe egiteko ofizioa da eta; beita hañbeste prozeskari. » Emaztiak saihetseti : « Bai, badikezugu abokatia, eta gossez hilen gutuzu. » Gizouna berian bere, ezpeita aichtituren emaztiaren lotsa gati.

Batista eskolan da; ikhasten du latia. Etcherat jiten denian, erran ahal leite : « Batistak arropa berri du : ezta haboro laborari arropan; jauntu da. » Tchapela bur saihetsian, sudurpeko bizarra leintha, zigarro pipa, phastaz. Ttottolo horen egiteko, senhar emaztiak gai eta egun lanian, thaiik batere; Batistarentako, bousti

izerdiak oro. Esteiariak tinkon tink, berak noula bizi? ez ogi chouriz, ez. Horhatsarebat. Batista badoua Pariseat. Emak horti, aita, zinez; ama, leher zite lanez. Batistaentakos behardela, sos, eta orano sos haboro. Sal alhorbat, sal sorhobat, gero minabersia sal, azkenian lurra oro sal. Eztzaio baratzen begiak baizi, eta hourak tourroustatzeko. « Erran neizun bainik, emaztiak, zereginen zen! » — « Astaña, zerentako nigar egiten duzu? Eztukegia abokatubat! Ofizio sosgile. »

Batista aldiz zer ari zen arte hartan! Nourk daki! Aita eta ama haiduru, haiduru luzaz, bena ezta ageri. Haou dela, goiz batez, ouste semia, eta borthan sarjanta: sesiak, komendamentiak, etcherik kanpoua. Ama hiltzera ospitale batetara. Aita, ikhassirik, bena ordu berant, zakia bizkarian, makila eskian borthaz bortha, heltier orori: « Aita beno gorago eztezaziela semia eraiki. »

Hori da denbora hountako eraountsia.

Hounen khountazaliak eztu nahi erran, ahaletan denak eztiala behar eman eskola haourer bere heñaren araou, bena bai oharterazi gacho jente gainti egiten diener, zeri buruzphiko douatzan, etcheke zaharen heñeti bere haourak khanbierazten dutienian, eta sar erazten hen burian ezin izaten ahal eztien gudiziazko gogouak.

Hortik jiten dia bazterak hartzen dutienak. philda tcharian dabilztanak, goiz higaturik; ostatu chokouak hartzen dutienak. Hortik besteren nahasliak, hara houna utsutuki eabilzaliak. Zouñ izan zatekialarik laborari houn, langile lehenetarik, aita familiatako behar bezalakouenatarik, ezta abokatu lan gabebat baizi, enplegatu bekhahtious eta arrountbat baizi. Eta, ororen burian, ereboluzione armadan lehenak.

Bere lanetik bizi, bena ahala eskaz dienek haourer eskola handi emaiteko, eritarzun bat bezala die haien erejenterazteko. Gobernial emanez geroz erejenter ezin etchekiten dien hitz elibat, gaitz eman bat bezala da erejenterazia; noun eta lekhu beno haboro erejent beita, eta ezpeita chokhobat noun sareraz.

Gobernamentiaren beraren gasetak, (*Journal Officiel*) khountatzen zutian, abentu azkenian erejent eta erejentsa geiak, eta erraiten :

« Eskoletako ministrouak ukheiten du egun oroz galtho hanitch, erejent eta erejentsa izateko Frantzian, Aljerian eta bestetan.

« Eskola egilen saldoua osso da eta eztaite galtho horier eman bakhoich bat ere. »

Urrietaren 31^{an}, 1886^{an}, bazien :

Erejent gei.....	6,428	} oro : 19,169
Erejentsa gei.....	12,741	

Aitzineko ourthekeko chifria beno gorago bost milaz ; aourthen brebetak ukhen dutieneki, badirate orano sei mila haboro. Eta gero, bihoua ihour haouren brebeta-raztera !

Le Temps, beste gaseta erepublikeñ batek, ber gaizaz mintatzian, erran du : « Hori bera da erejent eta erejentsen khountia, lekhu haiduru dienena. Chifru horik lotsagarri dira. Nouiz izanen da aski lekhu horier orori bedera emaiteko !

« Azken ourthe hoietan erejent eta erejentsa igaran dienetarik pharte hounbat gazte dira. Uduriak oro batu, luzaz egonen diela kargian, behin sarthuz geroz. Zer helturen da arren gerouan khountatzen dien erejent gei trister ? Orai badie esparantcha, bena bethi egurukitez, etsituren dira. Eta ordian !

« Eztaite haientako egin deus: bena haier so, eta oun-dokouek ikhas beze. — Erejenten izatia, lehen beno inbeigarriago delakoz, hartara phoussatu tu boullta handi batek. Ikhoustez orano serora eskola egilen lekhiak hustera zouatzala, hanitch abiatu dira erejentsat-zera, bazatekiala lekhu ororentako.

« Ezteia franko berant gibel utzultzeko ? Baratzen dienak saihetsialat lekhu gabez, eztirade oro jelkhiten kolejiouetarik ; bada erejentetarik ere jelkhizaliak, eta handitzez saldoua izanen da, ezpada bide berri zerbait hartzen. »

Bere haouren erejenteraztia gogouan dian laborariak, so egin beza houni. Ihour plañi da, arrazoueki, langile-rik eztela lurren erabilteko. Bena, nourena da falta ? Aita eta amena, ouste badie bardin dela bere haourek ez ukhenik ere inbeia lur lanian aritzera ; eta ordian laguntzen beitutie hiri handietat, edo beraien estatutik, beste zerbait urhatsetara.

Aita familiatako ziradenak, hirialat igor ordu zien haourak, zihauoen khantian etheki itzazie ; abokatu edo erejent beno lehen, hetarik egizie laborari. Hobeki izanen dira, ziek ere bai !



JAOUN JUJIAREN AITZINIAN

NAHASTEKAKO khortian, Presidentak jakile bati : « Zin egiten duzia erranen duzula dakizuna oro, deus gorde gabe ? » — « Bai, jaouna, zin egiten dit. » — « Eta arren, zer dakizu ? » Jakiliak : « Deus ere. »

★ ★

Emazte batek galthatzen zian senhareti berheztia, joiten zialako^z nouiz nahi. Jujek jakiliak erranzun zutien. Lehenak erran zian : « Egun oroz, erran ditezu, entzuten dit Barras emaztiaren joiten. » Presidentak : « Bena eztuzu ikhoussi ? » — « Ez, jaouna, entzun dit. » — « Ezpaduzu entzun baizi, eztuzu segurtatzen ahal deus ; zouaza jartera. »

Bigerenak, ber jakilegoua. Presidentak : « Bena, hots, eztuzu ikhoussi ? » — « Ez, bena entzun dit » — « Zouaza jartera. »

Hirourgeren jakilia, emazte chahar bat : « Egoiten nuzu M. eta M^a Barrasen aizo. Eztizugu arte, pharete mehe bat baizi, eta hen elhiak oro entzuten tit. Segur-

tatzen ahal zutut gacho emaztia ussu zaflaturik dela. » — « Bena, eztuzu ikhoussi? » — Eztit ikhoussi; bena kounprenit dit joiten ziala Barrasek, eta joiten ountsa zinez; segurtatzen zutut. » — « Ezpaduzu ikhoussi, zouaza jartera. »

Zouelarik bere lekhialat, emazte chaharrak igorri zian gibel ouhats bat. Erriz oro. Presidentak, chutiturik, eta ordukoz pazentzia galdurik: « Madama, khortia eztuzu aski erespetatzen. » — « Zer? jaouna! » — « Eztuzu khountugin, eta... » — « Ikhoussi duzia? » — « Ez bena bai entzun. » — « Ezpaduzu ikhoussi, zouaza jartera. »

Emazte chaharra, tther tther, bere jargialat. Presidenta ttotto. Han zienek, saihetser etcheke; solaz!

*
**

Tribunaliala jakilebat badoua astegunenkitto. Presidentak zorrozki: « Zertako eztzira beztitu chahuki-chiango, justiziala agertzeko? » — « Ene fe! jakiliak, zuk bezala egin dit: jin nuzu laneko arropaki. »

*
**

Parisen, justiziako zortzigeren khanberan. — Presidentak mañotatu bati: « Eztuzu ofiziorik? » — « Zer! eztudala ofiziorik? Hirour etan koundenaturik izan nuzu ouhouñ bezala. » Presidentak: « Eta zouñ da arren, zoure ofizioua? » Ouhouñak: « Zihaouk ezagutu duzu. » — « Eztuzu behinere lanik egin? » — « Orotarik isseiatsu nuzu. Jaoun aberats baten karroucha zañ izan nuzu; zor ditzatzu sei hilabeteren soldatak. Sarthu nunduzun gero bankierbaten mithil; galthatu zitazun hirour ehun libera berme: eman nitzozun; lekhia hountu dizu Amerikalat, erouan bi miliou eta ene ehun lusa. Bortchatu nuzu ezagutzeroa ouhouñ izatia dela ofiziotako hobena... lanaren egitiareki ihour phakaturik duzu. »


*
**

Abokatu elhebat. — Bertanago primutzeko aita eta ama eho zutian semebat defendatzen zian abokatubatek. Haren elhe tzurubilari beha asserik beno haboro, chu-

titzen da, eta aithortzen bere ogena. Presidentak, aski zela : « Aithortzen du. » Ordian abokatiak : « Jaoun Presidenta, ogendentak aithortzen diala, badukezu ; bena nik eztit aithortzen ! »

*
**

Ebaslebat khortiarene aitzinian. Jaoun jujiak erraiten dero : « Zoure ebaskerian, baduzu unguragarri phezurik : orderana (edo mountra) ebatsi duzu kolejioko zoure lagunari. » — « Jaouna, hala duzu ; bena berak hartara erazi nizu. » — « Noulaz ? » — « Bai : kharrikan bathu dit ; aspaldian eznizun ikhoussi ; nahi zizun, bada eta ez, jouan nendin haren etchera, *zerbail hartzera.* »



ESKOLETZAZ

1882^{ko} eskoletako legia hasi da bere fruten emaiten, frutu tzarrak... Aourthen berriz mintzo gira ountsa kounpreni erazteko zounbat inporta dian legiari buhurtzia eta haren frutu hastialer.

Dugun lehenik bi hitz ministrouak, setemer urhentzian eman dian maniaz : *Serora erejentsarik ezelala haboro herrietan izentaturik izanen, ez B. Pirencetan ez beste zounbail departamentutan.*

Aitzine hortan, Rouvieren ministerio berriaren hatsarian, ouste ukhen dugu behin behin Erelijioniaren kountreko errabia ematzera zouela. Bakezko eta moderazionezko ministro abiatu izan dia elhetan eta ere obretan. Bena kaseta gorbeltzez akhulaturik, laster aitzinekouak bezañ gaistotu dira.

Uskal herriko laour eskoletarik serorak, prefetaren manuz, igoriak izan dia. Hañbeste ourthez eskolak ederki etchekei dutien serora maithatiak bai Mougereti bai Arbonati bai Zouraidati bai Donaphaleuti aizaturik dira, libertatiaren izenian. Zer libertatia ! Herriaren gogoz kountre oro

idokirik, hañ ountsa noun, Laphourdiko hirour herri horie-
tarik bietan ari beitira jadanik serorategi egiten, eskola li-
bro haien begiratzeko. Donaphaleun aldiz, nahi bada ere-
publikeñ dien famaz, seriousialaz geroz, nahi die bere haou-
rentako eskola Ereligioniareki. Ezi hirour fraide ekhare-
razirik eskola libro egiteko, 80 haourek henganik ereze-
bitzen die eskola Jinkouaren araberrakoua. Erejentak
eztu berrogei bat haour baizi, chatharetan dien haourak
khountaturik. Mouthikouentako erelijionedun eskola
nahi badie Donaphaleutarak, zounbatez hobeki nahi die
neskatilentako! Herriko kountsellia ezta kountsultaturik
izan seroren idokiteko, eta kestione da prefetaren are-
statiaren nulertziaz.

Biba Donaphaleutarak eta ara biba! Ala beitiere, sohaio
ezpadira, khiristi balinbadira, Maouletarak behar ara-
gretatu beren igaran ourtheke ezacholkeria, bi eskola
Jinkotiar utzi dutielakoz khanbiatzera. Han baziren esko-
lategiak, eta halaz eztzen sakrifizio handirik egiteko.
Deus eztie egin, ez iseiatu! A kountrari, laour ehun
libera kountsellia botatu du Jinko gabeko eskolen
alokaidiaren.

Ziberouan ere, serorak dien herrietan, nouiz nahi
behar da eguruki ber guduka. Esparantcha azkarbat
badut Ziberoutarrak buhurtuko diela, Montoriesak, Do-
naphaleutarak, Manechak, Biarnesak buhurtu dien ber
indarraeki; eskola Jinkotiar berriak eraikiren diela bes-
ten saiheitsian, zien haourer erakousteko Jinkouaren bel-
durra eta Ereligioniaren amodioua. 1886^{ko} legiak ephant-
chu handirik ezarri du eskola librouentako; egin behar
dutukezien sakrifizioak phezu dirateke. Erepublika-
ren legar gorek, saltzepe eskazek, sakrifizio horiek
emendatuko dutie. Bena zien haouren arimaz da kes-
tione : aita amek kounprenitzen duzie zien eginbide
herchibat dela hori. Batek ezin diona, saldouak egiten
ahal du: sos ussiak egiten tu ehun liberakouak. Boron-
thate hounak, algareki enthelegatziak eta Jinkouaren
beneditziak burutan joan eraziko zutie.

Legiaren arabera, ezta haizu katichimaren erakous-tia eskolan, eta Ziberouan obediturik da zinzinez legia. Eskoletan badira orano Erelijione katolikouaren seña-le bakhoitch elibat, nahiz, igaran ourthian erran dugun bezala, botzka egunetan botz zounbait bildu Erepubli-karen gaintialat, eta beldurez populia lotseraz. Hare-gatik Erelijioniaren marka horiek ere eskolan eguneti eguniala galtzen ari dira; sarri deus ere eztateke.

Aphezak, lanik handienak dutien egunetan, bortchatu dira haouren biltzera Elizan, hañ aisa zatekialarik kati-chimaren ikhastia eskolan. Aita eta amer da abisatzia, haourak araheinki jaraiki ditian instruzione haier.

Eskolan haourek, salbu beharena, hanitch gaiza ikha-siko die, libertitzen, izkiribatzen eta beste asko gaiza; ikhasiko die ere, eta haou da lotsagarri Jinko gabe eta othoitze gabe bizitzen, Erelijioneko pratikarik, gabe, zounbait aldiz aphezaz trufatzen, Elizako bestez khoun-turik ez egiten, Elizako lege ezachol izaten. Erejent eta erejentsek ezteie erakoustean ahal ountsa egin dezen Jinkoua gatik, edo kountzentzia gatik, edo Jinkouak egiten dian mania gatik; bena solamente beren intres propiak gati, bere pollitarzuna gati. Zer zedaria gaizkiti ephantchatzeko eta ountsaren egiteko! Arduregi orano agituko da erejent eta erejentsa zounbaitek, bere aitzin-dari erelijione gabiak uduri izan beharrez, emanen tiela eskandalak, mentez haouren ezpiritian lanthaturikegonen beitira.

Haouren arimen phouzouatze hori da krimorik izigar-riena. Geroko adelatzen tu damu galgarrienak. Krimo handienen pare gastigaturik izan beharluke, zeren den atakatzen haour inozent, haour sinheskor, eta haregati bere beitzaz gaichkialako injogidurareki, bere burien begiratzen eztakien haour elibati.

Krimo hori egiten dianak, eta hobeki, eginerazten dianak, Jinkouaren eta zoizetatiaren etsai tristenak dirade. Ezta hirzik haien aski maradikatzeko. Egunko egunian gizounen legia haien althe izana gatik, egun-

batez Jinkouaren justizia izigarriak egurukiten dutu. Ordian orhituko dira Ebanjelioko hitz hounen egia lot-sagarriaz : *Nourk ere eskandalisatzen beitu nitan sinhesle dian haour tchipi horietarik bat, egiaz, egiaz, erraiten dereiziet, hobe lizatia la harentako eihera harribat lephouan itchasso zolalat ourthoukirik izatia.*

Egun holako da legia, tzarra, eta arrountian Ziberou-tarrak legia den ber erespetatzen du. Bena Jinkouaren legiaren kountre den legia deus ere ezta, deuz baliorik eztu. Kountzentziak debetatzen du hari obeditzia : Jinko hounari arnegatzia lizateke. Holako ordietan dutie behar aita amek, haourek, aphezek khiristi guziek erran Apostolien ahoti elkhi hitz horiek : *Hobe da Jinkouari obeditzia, gizouner beno.*

Erelijione gabe haourak eraikiten dutien aita eta amak ogendun dira aitzindari gaistouak bezañ, eta Jinkouari khountu garratzbat zor dukie. Ogendun eta zentzugabe dirade : ogendun, zeren ukho egiten dien aita eta amen lehen eginbidiari, zouñ beita Elizaren laguntzia haouren salbatzen eta santifikatzen; zentzugabe dira zeren egunbatez bilduren beitie ereñ direna, ordu berant ohartuko beitira frutu tzarrak bai zi ez tutiala emaiten ahal eskola gaistouak. Arduran fedia eta Jinkouaren legia gabe, hen semiak izanen dia haour gaisto eta abre elibat etchekouentako; alhabak, haour arhin eta nigar kharatsak ichoureraziko dienak. Gutti dira, edo, egiaz, batere ezta, ounest eta garbi baratzen direnik, kountzentzia, Jinkouaren beldurra eta sakramentien sokhorri baliousa gabe.

Arren, aita eta ama maitiak, beldur izan gerouaren, Jinkouak khountu galthaturen deiziela zien haouren ari-maz, hen fediaz eta bizi mouda garbiaz. Ez ahatz ez-tuziela zuzenik errelijione gabe zien haouren eraikitze-ko, zihauerek ziniatekiela mundu hountarik beretik lehen punitiak. Zientako dela kountzentziazko eginbide her-chibat, bekhatu mourtalaren pian, ez solamente othoitzten erran eraztia etchen, Jinkouaren zerbutchaeraztia, bena

orano haitatzia eskola aitzindari laguntzen ahal zutienek bide hortan.


Deus ekhoizpenik eztateke eskola ezpada khiristi familia bezala, eskola gisabat, eta etchia balinbada bestebat.

Badakit hanitch lekhuman neke datiala, haboroche lekhuman goberniaren eskola Jinko gabiak baizi eztielakoz. Erejent hounak gerouago ararotzenago dira; eztira ere nutre izaten ahal, eztira libre; eta hartakoz dira planigarri kasik bortchatu dielakoz phakatzen dutian gobernia uduri izatera. Helgaitz izigarribat da, bena zouñen kountre orok algarreki buhurtu behar beitzuzie, iratzaririk egoitez eskolan erezebitzen dien erakouspenetan gañen. Ohart etchekei eskola gaichtoua beno hobe dela gabia.

Eta khiristi hounek eraikiten badie herrian edo hulanian eskola jinkotiarra, ez ahatz zientako eginbide herchibat datiala zien haourren lehen beno lehen hartara igortia, eskola gaichtotik zalhe khentzia. Ezi familiarentako, Elizarentako, zozietatiarentako eskola khiristia dateke oraiko eta geroko salbagarri, aldiz mouda berriko eskola Jinko gabiak, oraiko eta geroko ezinago galgarri.



EREZETA



I. — Aihen ostouaren eritarzunaz eta sendotzeko erremediouez

BADU bostpasei ourtheren ungurunia eritarzun berribat agertu zaikula Uskal-Herrian, frantzez *mildiou* deitzen dena; zouñ eritarzun aihen ostouari eta erran ditezue beste frutatzen ostouer atakatzzen beita. Eritarzun haou jin den lehen aldietan, ezte-

rogu kasu handirik egin oustez eta eztzatekian deus handirik. Bena nabasiki, 1852^{ian} agertu laña *oldium* deitzen dena beno lanjerousagoua da azken jina, zeren hounek eiharterazten beitu aihenari ostoua, eta gero ondoua.

Badakigu noula bedatse oroz Joundane Jouhane altiari agertzen den, behin behin ostouaren aldepeko gaintiala, tchintilla edo grosa chouribaten itchuran, eta gero, ostouaren aldegaña hollituz eta eihartuz, goizik erore-razten dian ostoua. Ostoua gabe, zuhaña ezta deusetan ere, hantik dianaz geroz hats hartzen eta bizitzeko hazkurutik phartebat bilhatzen. Hortik, mildiouaz hartu aihenari laia phuntak berde baratzen, mahatsa desbardin hountzen, eta ardoua egin ondouan troublatzen edo nahastzen.

Eritarzun lanjerous hounen erremedioua, sofria bezala irousiki edirenik da, eta edirenik hasartez edo heltu beharrez. Houna noulache.

Bada Bordale altian miñaberse eremu handibat, batere zerratu gabe, bideberria erditarik igaraiten zaiona. Bideberri hartan igarailek mahatsik jan ez lezen miñabersen buruzagiari jin zeron gougouala behar zutiala bi-diaren bedera gaintitarik lehen bost edo sei herro-ker mahatsak eta ostouak mazkarotu, bitriol eta latsun hourez ihiztatzen zutialarik, ihourk mahatsik har ez lezan. Noula ordunkoz mildioua hassirik beitzen jiten, miñaberse hetako ostoua goizik eihartu eta erori zen; benia eztzen guti naoussiaren eta igarailen estouna-mentia, ikhoustez bitriolak eta latsunak hounki aihenen ostoua eder, fresk, eta mahatsak beltz beltza, eder eta ezinago ountsa hounturik.

Gaiza hoiek ikhoussirik, M. Millardet deitzen den Bordaleko profezur jakintsubat hassi izan da gaitz berri hounen estudiatzen eta egin du drogabat *Bouillie bordelaise* izena eman derona, (eta zouñ droga eginik beita bitriolez, latsun beroz eta hourez), ostouaren gaitzetik begiratzeko. Eremedio haou phentsatu denetik berhala,

mundia hassi izan da, bai Bordale altian, bai beste lekhetan, aihenen *eremediatzen* M. Millardeten *ins-
trutzionen* arabera, eta hala egin dienek, ostouak eta mahatsak ezinago ederki kountserbi ukhen dutie.

Bena eztugu aourthen hurrun jouan behar ikhousteko zer feit bitriolak latsunareki egiten dian aihenetan. Zibe-rouan berian, Maoulen, Gotañen, Zalgizen eta beste hanitch lekhuman, esperientzia egin die, eta klarki age-ri da bitriola latsunareki dela aihen ostouaren sendot-zeko eta mahatsaren edertzeko *erremediorik* segurrena eta baliousea.

Noula behar den eremedioua prestatu. — Barrika zahar buru ideki batetara ezarten duzu *berrogei eta hamar* litre hour. Hartara ezarten duzu *laour* kilo bitriol ountsa chehekaturik, eta nahasten duzu makhilabateki.

Beste bojabatetan ezarten duzu *zazpi* kilo latsun bero *mokhorretan*, eta latsun hartara husten duzu emeki emeki *hamabost* litre hour. Latsuna hourtu denian, piri-kornak ountsa cheheka, eta husten duzu latsun houra barrikan ezari duzun bitriol houriala eta han algarreki nahasten.

Horra eremedioua prest aihen ostouen ihiztatzeko. Bena abisa houni : 1^{ik} bitriolak eta latsunak behar diela bere ber hourterazi, eta gero, bedera gainti hourtu ondouan, algarreki nahassi ; 2^{ik} latsunak bero izan behar diala eta ez dartarri ; Biarnokoua houn da eta bai Zibe-roukoua ere, gizeneti den ber ; 3^{ik} bitriola behar dela haitatu bluenetik, klarenetik, eta ez kaparous kolore.

Noula ezar eremedioua. — Denbora idorrareki jouaiten zia miñabersiala eta hasten zia ostouen ihiz-
tatzan erhatz tchibibateki ilharriz eginik, iskerreko eskian bertz tchibibatetan droga edo eremedioua era-
bilten duzularik. Eztuzu nessessari ostouak oro koteaz thapaturik izan ditian, ez eta ere ostouak oro hounkirik izan ditian drogaz. Bena zeri kasu egin behar den duzu,

mahatsen ez ahalaz drogaz hounkitiari, zeren bitriola phozou beita. Haregatik ez lotsa, mahatsak herakitia-reki phozoua oro galtzen dizu. Lanjerik gabe mahats jan nahi dienek aldiz, aski dizie mahatsen trenpatzia hourian minagre amiñibat ezarririk eta arra igaraitia hour chahubatetan berriz, gero jateko.

Urhentzen dizugu erraitez badiela aihenen zalhe ihiztatzeko machina elibat. Ountsa eginen duzie, biga edo hirour junta, eta halakobat erosten baduzie. Bada prezio orotarik. Merkena eta ber denboran hobenetarik bat da Noel Parisekouak egin diana : eztu sei libera baizik balio.

Houna M. *Millardeten* arabera, zer ordutan behar dien ihiztatu miñabersiak *Bouillie Bordelaise* rekin. — *Oidium* laña sofrazten den bezala, mina jin gabe, ber gisan mildiouak ere behar du, agertu beno lehen ihiztatu lehen aldikoz, aihena lili den aitzineko astian. Eta haregati lilitu gabe ezpaliz urhenturik ihiztatzia, behar lizate lili denboran jarraiki, esperientziak erakousten beitu guti dela mendretzen erekolta.

Bost edo sei aste berantago, zuhur denak berriz ihiztatuko du aihena, nahi bada lañarik ez lizatekian ageri.

Posible da hirour geren aldi batez eskusatzen ahal lizatiala ihiztatzeti, berheziki uztaila eta agorrila hanitch idor badira eta mahatsa argitzen bada ostoa eihartze handirik gabe. Bena ezta ahatze behar erekolta segurtaturik izana gati kondizione horietan, ardouaren kalitatia flaka ahal litakiala ostoua eihart baledi mahatsaren hountzeko phuntian. Ber gisan ezta ahatze behar berouña igaran artio ostouak etchekitzen badu, zoura hobeki egiten dela, zañak azkarrago baratzen diela izotz eta kharrouer buhurtzeko, eta halaz oundoko ourtheko esparantcha segurrago datiala. Uduri zait, arren, arrountian, zuhur dena eztela eskusatuko hirour geren ihiztatzeti agorrila altian, eta lehen ere aihenak beharra markatzen badu.

Lehen ihiztatzian drogak behar du iraouri ostoz guzietan, eta berheziki lehen agertzen. Bigarren aldian, ihizta berheziki, lehen ihiztaldiaz geroz agertu ostouak. Eta hirour geren aldian ihizta bigeren aldiaz geroz sorthu ostouak. Ihiztatze horiek behar die egin bethi gañeti behera. Ihiztatzeti landa, lehen hogeitaz ta laour orenetan gertha baledi euri eraountsi handibat, lana aouher lizateke eta arahasteko. Ihiztatu den oundoko laour egunetan eztukie behar adar laiek ez etchekei ez eta alchatu.



II. — Mahats graspatik egiten den ardoua

Ardou guti egiten den ourthe hoietan, zertako laboraria ezta hobeki baliaturen bere mahats graspa, ihourk ardou haborocheren ukheiteko zederian eta sosik ez ezarteko edari drogatu erosten? Houna arren mouda berribat zerbutchu egiten diana miñaberse dien jenter orori, mahats graspa bigeren ardoubaten egiteko, kasik lehena bezañ houna, delikatia, eta kountserbatzeko houn datekiana.

Holako *ehun* boutilla ardouen egiteko hartzen duzu *hirour etan* hogeitaz kilograma graspa, *hamazazpi* sukretaz eta *ehun etaz* hamar litro hour. Graspak izan behar duzu brentsati landa *fresk*, eta *urrina* houn, (bestela gasta liozu ardoua), hourak aldiz *klar etaz chahu*, ala izan dadin uhaitzekoti, errekekoti, ala phutzukoti; sukria *ogilan deneti* erran nahi beita chouriti eta ez kassounada.

Egiteko maneria. — Barrikabat buruz gora ezar, eta hartara husten duzu zoure graspa eta 110 litro houra. Binataren egiteko bezala, hourak hartu dianian kolore amiñibat, zolako bouchouti idokiten duzu bertz handitarabaten heña eta beroasten suian, kasi heraki artino; hara husten sukria hourtzera, nahasten duzularik.

Sukria hourtu den bezañ sarri, buruz gora prestatu duzun barrikala husten duzu sukretaz hour beretia, amore-

katik eta hounek epheleraz dezan barrikan dien graspa eta hora, 28° edo 30° *centigrades* tara drano. Hebentik aphurbaten burian, herakitzia hassiko duzu, mahatsarena bezañ handi, eta irañen dizu bi hogeita laour orenen ungurunia. Herakia ichiltu bezañ sarri, ardoua eginik duzu.

Prestatzen duzu ountzibat zederian, eta hartara ezarten zoure bigeren ardoua, graspa arratinkatzen duzularik. Erran tugun lan horien ountsa egiteko, behar-dikezu graspak barrikan ezartiareki ountsa cheheki, phorroki, eta gero, ardoua herakiten ari den denboran, graspak ardura nahassi. Net ountsa dukezu ere ardoua ezarten dukezun barrikaren alumetstatzia ardouaren aisago klar eraziteko. Nourk ere nahi beituke ardou erran duguna beno haboro egin, harek aski duke ardou egin nahi dukiaren araou ezartia thupan graspa, hour eta sukre, (ehun litre ardou bakhoitzaren behar delarik 60 kgr graspa, 110 litre hour eta 17 kilo sukre), eta segur izaten ahal da badukiala ardoubat houna, eta hanbate-naz haren zedera emendatuko diana.

Heben erranen dizugu, ardou eginak badukiala 10 *degrés alcool* edo indar, zounbait *degrés* herriko ardouek beno gutiago, bena haregatik zouñ nahi bezañ houn izanen da, bai edateko, bai begiratzeko. — Saldu nahi baduzu ardou hartarik, behar duzu erran erostunari graspatik egin ardoua dela. Legiak hala nahi dizu eta garrazki puni zintiro erostuna troumpa bazeneza.

Dagun ourtharilan, *Eskualduna* izena dian gasetan, mintzaturen gutuzu sukriaren merkiago erosteko administrazionari egin beharden galthouaz, ezi gobernamentiak eztizu ephantchatzen holako ardouaren egitetik, eta sukria merkiago ukhen eraziko dizu galthoua ordu deno eginik den ber.



III. — Toumataren eta lur sagarraren eritarzunaz.

Ber tratamentia egiten ahal da toumatari eta lur sagarrari, *bouillie bordelaisereki*. Bena ostouak denbora llaburen barnen egiten tielakoz, prekozione zounbait hartu behar da. Mina jin gabe ihiztatu behar da aihena bezala, arhinkiago bena ussiago. *Toumataren* eremediouak behar duke egin bost edo sei egunetarik, eta ukhurutu lanthariak bere gorapen geia egin dukianian, sagarrak agertu ondouan.

Lur sagarrarentako, aldiz, aphalago baratzen delakoz, biga edo hirour ihiztaldi drogareki aski dira. Lehenak egin behar du maiatz azkentchiara, sasoua ezpada bero eta bousti. Hala baliz, lehenago lehiatu behar leite egi-tera.

Lur sagarraren edo toumataren osto eriak idokitzen direnian, ez tie behar utzi lurrian, ez eta gorotziala ourthouki; lehen beno lehen erre erazi behardie, zeren eta eritarzunaren burnoua oundoko kountserba beileite, bai lurrian bai gorotzian.

Badira lur sagarra maite dienak chollki egossirik, edo entsaladan, besteagorik gabe. Bena ardura agitzen da hoursu eta bella, goustia eta itchura galdurik. Bada mouienbat aisa bere goiduraren sagarrari begiratzeko. Aski da houra ountsa heraki denian baizi lur sagarraren bertzialat ez botatzia, eta egossi dienian berhala houreti idokitzia.

Houna toumata sagarren ossorik begiratzeko bidebat, ororek egiten ehi dena. Haitatzen dia toumatarik ederrenak eta sanouenak, ountsa hounturik. Gero, ountsa tchukatu oundouan, phikatu gabe, ossorik herokatzen dia beirina ountzi handi edo thipiñabaten barnen gañiala artio, eta ordian thipiña edo ountzia bethatzen da hour gaziz miñagre chortabatez emendaturik. Behar da *sortzi pharte hour*, *bat satz*, eta *bestebat* miñagre. Gañiak estali behar du erhibat lodi olioiz. Gisa hortan mentez kount-

serbatzen dia toumatak; zortzi hilabeteren burian orano sano dira. — Ezta hanitch khosteko isseiatzia.



IV. — Beste eremediobat mildiouaren kountre.

Bada erhaouts berhezibat, deitzen *sulfo sléatite cuprique*, eresultat araroua eman diana mildiouaren kountre, lur sagar eta toumataren eritarzunetan. Houra nekez izaten den miñebersetan, hanitch komodo da. Segur da 1886^{an} goithu dutiala oidioma eta mildioua ber denboran. Indarra azkarrago du erhaoutsaren emaitian bousti badira ostouak eta denbora. 25 edo 30 kilo aski da laour ithegunentako, eta erhaoutsak oston gaña *arhin arhina* Bouhatu behar du, *bouillie bordelaise* emaiten den hirour sasquetan. Doi bouhatzen dian bouhader espressukoua saltzen da *sei libera* Tolosan.

Erhaouts horeki eztu behar osoki ostouak chouritu; osto tendren basterrak erra litiro. Aski da bistak ikhous-ten ahal dian estalgi meheñibat. Emaiteko thenorerik hobena da goizan goizik hamar orenetara drano edo euri houn batetarik landa.

Noula mildiouarentako beita eremedio hori oidiomaren beno segurago, agert baledi haregatik oidioma mahatsian, aihenak sofratu behar luke, erran den erhaoutsak ezpalinbadu chahatu oidioma.

Erhaouts hori da biderik segurena toumaten eta lur sagarren chahu begiratzeko. Lehen bouhaldiek flaku izan behar dukie. Emanen dira lantharek zehebat gora dukielarik eta boullia emaiten den ber ordietan. Erhaouts hori khostatzen da bost edo sei sos kiloa.



V. — Kukien galeraztia graneretarik.

Urrin borthitzeko belharrek badie photeria kukien ohiltzeko. Hartakoz aski da ogi athian sartzia chichari belhar, ahamenta, meldo eta urrin borthitza dien belhar eskutara zounbait. — Ilhar irinak, ogi athiala ereñik, eta gero ogiareki phalabateki nahassirik, horek ere ohiltzen dutu.

Kaseta serious batek emaiten du orano mouien haou. Bertz handibat betha ezazu bassa phiperaen ostoz. Ostouetan gañen ezarten duzu 750 grama gatz larri, biz-pahirour baratchouri buru eta feretabat houren altia. Oro algarreki egoseraz ezazu, eta egoskin horeki boustu granereko selaoua, pharetiak eta ogi athia, nahassi gabe. Ihiztatze hori egin bezañ sarri, kukiak saldoka elkhitzen dira ogi atheti; eskrebiza egozia bezañ gorri hilik baratzen dira ihiztatu lekhian igaraiten balinbadira.

Balizateke beste erremedio bat, eta segurena, bena badu, egiten den denboran, lanjer handibat, pipa edo khanderabat granerialat eraman baledi. Haou da. Poutikairian erosten da boutillabat *sulfure de carbone* izena dian drogati. Ogi athetu gei duzun selaour solala bareiatzen duzu. Selaour sola hortara athe zazu zoure ogia, ogi hori ountsa thapa estalgiz, eta kukiak zalhe galtzen dira. Ogi giza hortan trataturik izan denak, deusere eztuke urrinik gero aizatzen balinbada.



1887^{eko} EREKOLTA

EREKOLTAK orotan buruturik dira, ogiak jorik : aisa da jakitia ogien khountia. Orotako berriak jakinik Laborantzako ministrouak deklaratu du eraiki dela Frantzian *ehun miliou* ektolitira ogi, edo phezutan *laouretan hogei eta bost* kintale. Egia bada ere,


liferentzia ttipibat estimazione hortan gañen erediten die bi gasetak (*Bulletin des Halles* eta *Echo agricole*) bere gainti egin dien inkestan. Haiek dioie eraiki dela 117,000,000 ektolit. ogi, edo, phesutan, 92,000,000 kintale. Nounti nahi oro akort dira eraiteko aourthenko erekolta, artekobat beno hobia dela eta bihia araroua dela. Beste bihi subertiakhatik, garagara, sekalia, olhoua, eztira harainti. Frantziako beharruniak heben berian suplitzen ahal dira aren; eta haregatik kanpotik zinez ari dira khareatzen. Igaran agorrilan berian, sarthu izan da Frantzian 853,000 kintale bihi atzetik.

Houna, goberniaren arabera goure departamentuko khountiak : Lur ereñek badie nounbait 48,780 ektara. eta ekhoizpen eman die 780,480 ektolitra, edo, phezut, 594,284 kintale. Bata beste ektaran izan da hama-sei ektolitra bihi. Arthouazkestione aldiz, ororen errana da sekula izan den ourtherik hobena izan dela, Jinkouari esker, zouñek kountsolatzen beitu lotsaturik dena hari pharatzen denian.


Berouñak ere egin dira; beste ourthez beno haboro-chiagio ardou egin da orotan eta Ziberouan ere; bena kalitatia hanitch houna, mildiouak ostouen pharte baizik erorerazi eztian miñebersetan. Gaitza ere flakiago zen igaran ourthian beno zeren zen denbora idor eta eremedioua egin izan delakoz. Hanitch lekhutan lachuki baratu da egiteko boulliarekin hirourgeren ihiztatzia.

Atzian, guneka hanitch eman du mahatsak. Espanan eta Portugalan noun ezpeita mildiourik, esparantcha beno haboro izan da. Portugala berheziki hañ aberats zen noun thupak faltatu beitira. Leheneko denboretan Frantzian ezguniana ber phena irousa !





URHENTZEKO ISTORIA EDO ERASSI ZOUNBAIT



ABISADIKO Erretoari egari zeren mintzo zela gober-
niaz Elizan. Botzka aitzineko igantian, pheder-
rikagiala igaitiareki, ikhouston du badela molt-
chobat, eta hetan erepublikako perkuradoria, juje
bakeskoua eta jandarmabat, jinik behatzera. Janartora
ez beldurti; zeñhatzen da, erraiten Jinkouaren maniak :
Jinko bakhoitz bat adora, etc...; gero : « Ene aurhide
maitiak, horra Jinkouaren legia : begira ezazie bethi
eta lekhu orotan; eta eztzirade lotsa izanen, ez erepu-
blikako perkuradoriaren, ez juje bakezkouaren, ez eta
jandarmen. Grazia hori deiziela Jinko hounak. » Janar-
torak, eraitch phederikagiati, eta meza erran. Hirour
jaoun behazaliak sudur peko bizarra leintatzez : « Jakin
banu, eztzia hounako goure astoua !!! »

*
*
*

Ardanoibati nourbaitek : « Utzi duzu ezagutzia goda-
letaren zolan. » Arapostia : « Eztziot sinhets; sobera
ountsa godaleta uchtiatzen dit. »

*
*
*

Baiounarik Paoubea dilijentzia jouan erazten zian
gizounbat, famaturik zen, emaiten zeitzen mezien egitera
ez achol izatez. Hartzera bethi prest, eta uztera lehena
zen. Baiounarat abiatzen zelarik aldi batez, emaztebatek
behartu zian ekharteko boutillabat itchas hour. Baietz.
Utzuli zeneko, emaztia han, bessoua luzaturik :
« Ekharri deitazia ? » — « Zer arren ? beharriari hatzez ;
enizun mankatzen ahal. » Eta bere buriari : « Zer galt-
hatu zeitan ? » ezpeitzian orhit gutienetik ere. « Arren
emadazu ? » — « Ah ! hañ chuchen, madama, ni heltu
nizaneko, urhenturik zuzun. » Emaztia izeriturik gibe-
lialat; etcheakouan heltu eta bathier itchassouan eztzela
haboro hourik !

*
**

Bassa bazter batetako Eretor batek behar beitzian trebesatu uhaitza, bere zaldi beharri luzia nekez sar erazi zian igarangiako bachtian. Sarthurik ordukoz bazen ofizier gazte bat, zouñek, ez sobera ounestatereki, erran beitzeron : « Gisala, Janartora, zien herrian astouak lotsor tuzu ; zouria, segur, ikhare dardar duzu. Elikezu behar halakatu ikhoussiz geroz zu khantian zutiala. » Arapostia : « Bazunu zuk ere khorda bat lephoti, hounek bezala, ferrak aztalian, aphez bat saihetsian, haou beno ikhare ago zintake. »

*
**

Bassabazter batetako eskolan, haourer erejentak erakousten zian soustratzioneko eregla : « Eia, khountu ossobatetarik idekiten badut laourdunbat, laouretan, eta hori berhala, zer baratzen da ! » Ichil oro jargietan. « Eztuzie enthelegatzen ! Esplikaturen deiziet. » (*Sakolati mersikabat (edo pheskabat) idekitendu.*) « Horra mersikabat : laourdenkatzen dut : (*hetara begiak armaturik haourak.*) jaten dut bat, bestebat, eta bestebat, eta bestia : zer baratzen da ? » Batetan orok : « Ezurra !! »

*
**

Kountselluko sarthuz geroz, zer gora zer behera zouen, arankura zen Allande. Egun hoietarik batez, merian khountatzen zutian igaran ourtheke ezkontziak. Ajuentak erran zeron zer ikhertzen zian. Allandek : « Nahi dit jakin emazte beno haboro gizoun ezkontzen denez. »

*
**

Barberbat zahartzen hassitorik, eztzen hanbat arankura jouan lekion ihour gaiaz amurratzera. Gaiherditan izanik eribatetara, oherat ari zelarik, emour gaichto, zeren jaiki erazi zien thenore hartan, borthan tanp, tanp ! « Zer da ? » — « Othoi, bertan, bertan ! Ene semiak iretsi dizu sagubat. » — « Arren errozu irets dezan orai gathubat. Emazie phaoussia ! »

*
**

Taoula d'host batetan, gizoun fede gabebat ari zen,

bera, eta luzaz, argudiatzen Jinkorik eztzela. Barazkalzale lagunetarik bateri ere ezpeitzeren balia emaitia arapostu, zartez ungurutzen delarik *Lacordaire* phederikari aiphatiari buruz: « Jaouna, zouri duzu goure argitzia gaiza handi hortan. Erraguzu, ezteia zorokeria, kounprenitzen ahal ezten gaizaren sinhestia ? » — « Ez batere, ihardetsi zeron; nik eztit ouste hola. Kounprenitzen duzia noulaz suiak hourterazten dian gourhia, eta gogorterazen araoutzia ? Bi gaiza bedera gisatako eta ber kaousati jiten ? » — « Ez, erran zian; bena zer erran nahi duzu hortik ? » — « Haou: zuk ez kounpreniturik ere hori, haregati sinheste baduzula mouletetan. » Gizoun fede gabe houra ichiltu zen; barazkalzale lagunek, aldiz, trufaz gaintika eman zeren.

* *

Mendi chendabat gainti, bazouatzen hamabi hachero kountrebandan, chorrouak pholboraz betherik, eta hatsalbo. Chorrouetarik bat chilaturik, thir, thir, ichouri bidian pholbora; aski beitzatian salhatzeko kountrebandistiak nountik igaran ziren. Bat utzultzen da gibel, jakitera noun hassi den ichourten; arte hartan beste hamekak, haiduru, nourk bere chorouetan ttottoturik. Pholbora herecharen baztera ediren dianian gibel jouanak, haren chahatzeko sourdakeia har, eta emaiten dero su. Four, four, su garra hameka lagunetara. Ale milakoua, zer da haou?... Chorrouak har, aztalak ahint, laharrokaz, gibel sorik ez.

Khountu haou, datekian egia segurenatarik da; hamabi hachero hetarik bat bizi da orano, hounen khountazale eta barreiazale.

* *

Anderebatek bere chakhurrari: « Ago ichilik, Azor. » Eta chakhurrak aitzina: « Haou! haou! » — Zouñen itchoussi! hou! hou! » — « Haou! haou! » — « O! hou, hou, itchoussi! » — « Debria! madama, igarailebatek, zañak ozkiturik. Itzitela phuru biak batetan ari tchanpaz. »

Elhesta luche. — Parisen, biltzarenian zirelarik lege egiliak, deputatubat mintzatu zen hirour orenez, ez hats hartu gabe, bena bai ekhuratatu gabe. Beha zirenatarik biga biharamenian algareki; bata bestiari: « Entzun duzia noula mintzatu den hirour orenez ekhuratatu gabe? » Ihardestia: « Errazu, ezkonturik zira, ni ere bai; ene emaztia mintzo duzu eguna oro athertu gabe! »





MAIATZA edo EPHAILA

Eg. luzatzen dira oren eta laurdenez




- ☿ a. l. 2ⁿ, aratseko 11^{or} eta 56^{min}.
- ☼ a. b. 11ⁿ, goizeko oren 1 eta 33^{min}.
- ♂ l. l. 18ⁿ, aratseko 11^{or} eta 14^{min}.
- ♂ a. b. 25ⁿ, aratseko oren 1 eta 49^{min}.

ARAMAIATZA edo EKHAINA

Eg. luz. dira oren eta 1/4, 22^a artino.



- ☿ a. l. 1ⁿ, aratseko oren 1 eta 3^{min}.
- ☼ a. b. 9ⁿ, aratseko 4^{or} eta 43^{min}.
- ♂ l. l. 17ⁿ, goizeko 6^{or} eta 59^{min}.
- ♂ a. b. 23ⁿ, aratseko 9^{or} eta 17^{min}.



- | | |
|----------------|----------------------------------|
| 1 Asteharte. | s. Filipe et. Jak. Ap. |
| 2 Astizken. | s. Atanasio. |
| 3 Ostegun. | <i>Dona Khurutze</i> |
| 4 Ostirale. | ^{sa} Monica. |
| 5 Neskanegun. | s. Pio V. |
| 6 IGANTE. | J. Johane, Eb. B. L. |
| 7 Astelehen. | <i>Rogazioniak.</i> |
| 8 Asteharte. | J. Migelen ag. |
| 9 Astizken. | s. Gregori N. |
| 10 Ostegun. | SALBATORE |
| 11 Ostirale. | s. Oriens. |
| 12 Neskanegun. | s. Nere eta Akile. |
| 13 IGANTE. | s. <i>Jenio.</i> |
| 14 Astelehen. | s. Bonifazi. |
| 15 Asteharte. | s. Isidro, labor. |
| 16 Astizken. | s. Ubaldo. |
| 17 Ostegun. | s. Paskal B. |
| 18 Ostirale. | s. Venanzio. |
| 19 Neskanegun. | ^{sa} Pud <i>Barour.</i> |
| 20 IGANTE. | PHENTEKOSTE. |
| 21 Astelehen. | s. Jermeri. |
| 22 Asteharte. | ^{sa} Kiteria. |
| 23 Astizken. | s. Des. <i>IV Th.</i> |
| 24 Ostegun. | A. B. Laguntzalia. |
| 25 Ostirale. | s. Greg. <i>Vil IV T.</i> |
| 26 Neskanegun. | s. Fil. Neri, <i>IV T.</i> |
| 27 IGANTE I. | TRINITATE. |
| 28 Astelehen. | s. Ubaldo. |
| 29 Asteharte. | s. Marimin. |
| 30 Astizken. | s. Felix. |
| 31 Ostegun. | BESTABERRI. |

- | | |
|----------------|-----------------------------|
| 1 Ostirale. | s. Kaprazi. |
| 2 Neskanegun. | s. Potin. |
| 3 IGANTE 2. | ^{sa} Klotilda. |
| 4 Astelehen. | s. Franzes Kar. |
| 5 Asteharte. | s. Florenzio. |
| 6 Astizken. | s. Norbert. |
| 7 Ostegun. | s. Gilbert. |
| 8 Ostirale. | J. BIHOTZ SAK. |
| 9 Neskanegun. | ^{sa} Pelajia. |
| 10 IGANTE 3. | ^{sa} Margarita. |
| 11 Astelehen. | s. Barnabe. |
| 12 Asteharte. | J. Johane, Fak. |
| 13 Astizken. | s. <i>Antoni Pad.</i> |
| 14 Ostegun. | s. Basila. |
| 15 Ostirale. | ^{sa} Jermana. |
| 16 Neskanegun. | s. Franzes Réj. |
| 17 IGANTE 4. | s. <i>Avit.</i> |
| 18 Astelehen. | ^{sa} Marina. |
| 19 Asteharte. | s. Gervasi eta Prot. |
| 20 Astizken. | ^{sa} Julieta Falk. |
| 21 Ostegun. | s. Louis Gonz. |
| 22 Ostirale. | s. Paulin. |
| 23 Neskanegun. | s. Eusebio. |
| 24 IGANTE 5. | J. JOHANE BA. |
| 25 Astelehen. | ^{sa} Eufrosia. |
| 26 Asteharte. | J. Johane eta Paule. |
| 27 Astizken. | s. Prosper. |
| 28 Ostegun. | s. Irene. |
| 29 Ostirale. | J. PETIRI eta P. |
| 30 Neskanegun. | J. Pauleren or. |



USTAILA

Egunak llaburtzen dira oren 1ez.




- ☿ a. l. 1ⁿ, goizeko 4^{or} eta 2 min.
 ● a. b. 9ⁿ, goizeko 6^{or} eta 26 min.
 ☿ l. l. 16ⁿ aratseko 22min.
 ☿ a. b. 23ⁿ, goizeko 5^{or} eta 54min.
 ☿ a. l. 30ⁿ, aratseko 8^{or} eta 39min.

AGORRILA

Egunak llaburtzen dira oren 1 1/2



- a. b. 7ⁿ, aratseko 6^{or} eta erditan.
 ☿ l. l. 14ⁿ, aratseko 4^{or} eta 53 min.
 ☿ a. b. 21ⁿ aratseko 4^{or} eta erditan.
 ☿ a. l. 29ⁿ, aratseko 2^{or} eta 28min.



1 IGANTE 6.	s. Tierri.	1 Astizken.	J. Petiri katielan.
2 Astelehen.	A. B. BISITAZ.	2 Ostegun.	s. Alfonso Lig.
3 Asteharte.	s. Gillelme.	3 Ostirale.	J. Esteberen edir.
4 Astizken.	s. Marzial.	4 Neskanegun.	s. Dominika.
5 Ostegun.	s. Zirile.	5 IGANTE 11.	A.D.M. Eibur.
6 Ostirale.	sa Mektilda.	6 Astelehen.	J. K. Transfig.
7 Neskanegun.	s. Laurens, ka.	7 Asteharte.	s. Kajetan.
8 IGANTE 7.	s. Eujena.	8 Astizken.	s. Ziriako.
9 Astelehen.	s. Elisabet, p.	9 Ostegun.	s. Jermain.
10 Asteharte.	Zazpi anaie m.	10 Ostirale.	s. Laurens, m.
11 Astizken.	s. Pio.	11 Neskanegun.	s. Tiburze.
12 Ostegun.	J. Johane Galbert.	12 IGANTE 12.	sa Klara.
13 Ostirale.	s. Anaclet.	13 Astelehen.	sa Radeconda.
14 Neskanegun.	s. Bonaventura	14 Asteharte.	s. Eusebe.
15 IGANTE 8.	J. Johane Major.	15 Astizken.	A.D.M. ZELIALAT.
16 Astelehen.	A.D.M. KARM.	16 Ostegun.	s. Rok.
17 Asteharte.	s. Aletsis.	17 Ostirale.	sa Emilia.
18 Astizken.	s. Kamille.	18 Neskanegun.	sa Elena.
19 Ostegun.	s. Kizente Paulo.	19 IGANTE 13.	sa Filomena.
20 Ostirale.	s. Filibert.	20 Astelehen.	s. Bernat.
21 Neskanegun.	sa Praxeda.	21 Asteharte.	s. Julien Leskar.
22 IGANTE 9.	sa Maria Magd.	22 Astizken.	s. Ipolita.
23 Astelehen.	s. Apolinari.	23 Ostegun.	s. Filipe Beniti.
24 Asteharte.	s. Kristina.	24 Ostirale.	s. BARTTOL., a.
25 Astizken.	J. JAKOBE.	25 Neskanegun.	s. Louis, erreg.
26 Ostegun.	sa Anna.	26 IGANTE 14.	s. Zephirin.
27 Ostirale.	s. Galatori. m.	27 Astelehen.	s. Zezair.
28 Neskanegun.	s. Nazari eta Zelze.	28 Asteharte.	s. Agostin.
29 IGANTE 10.	sa Maria.	29 Astizken.	J. Johane leph.
30 Astelehen.	s. Abdon.	30 Ostegun.	sa Rosa.
31 Asteharte.	s. Inazio Loyola.	31 Ostirale.	s. Remoun Nonat.

BURUILA edo SETEMER

Eg. llab. dira oren 1 eta 3 laurdenez.



- a. b. 6ⁿ, goizeko 5^{or} eta 5^{min}.
 ☉ l. l. 12ⁿ, aratseko 10^{or} eta 9^{min}.
 ☿ a. b. 20ⁿ, goizeko 5^{or} eta 34^{min}.
 ☿ a. l. 28ⁿ, goizeko 8^{or} eta 40^{min}.

URRIETA

Eg. llaburtzen dira oren 1 eta erdiz.



- a. b. 5ⁿ, aratseko 2^{or} eta 43^{min}.
 ☉ l. l. 12ⁿ, goizeko 5^{or} eta 38^{min}.
 ☿ a. b. 19ⁿ, aratseko 9^{or} eta 18^{min}.
 ☿ a. l. 28ⁿ, goizeko 2^{or} eta 5^{min}.

1 Neskanegun.	s. Vizente, Aph.
2 IGANTE 15.	s. Ezzebe, erreg.
3 Astelehen.	s. Lizier.
4 Asteharte.	s. Taurin.
5 Astizken.	s. Laurens J.
6 Ostegun.	s. Onesifore.
7 Ostirale	s. Rena.
8 Neskanegun.	A. D. M. SORTZ.
9 IGANTE 16.	s. Omer.
10 Astelehen.	s. Nikolas T.
11 Asteharte.	sa Eujenia.
12 Astizken.	s. Gi.
13 Ostegun.	s. Maurillo.
14 Ostirale.	Dna Khurutze.
15 Neskanegun.	s. Nikomede.
16 IGANTE 17.	s. Ziprien.
17 Astelehen.	s. Fren Zauriak.
18 Asteharte.	s. Josef. Kup.
19 Astizken.	s. Janv. IV Th.
20 Ostegun.	s. Eustache.
21 Ostir. IV Th.	s. MATHIU Eb.
22 Neskanegun.	s. Maur. IV Th.
23 IGANTE 18.	sa Thekla.
24 Astelehen.	A. B. Librazala.
25 Asteharte.	s. Firmin.
26 Astizken.	s. Tomas Vill.
27 Ostegun.	s. Kosme eta Dam.
28 Ostirale.	s. Isupere.
29 Neskanegun.	J. M. EL, ARK.
30 IGANTE 19.	s. J. nimo.

1 Astelehen.	s. Remi.
2 Asteharte.	Ainguru Begir.
3 Astizken.	s. Vinzeslaz.
4 Ostegun.	s. FRANZES As.
5 Ostirale.	sa Aura.
6 Neskanegun.	s. Bruno.
7 IGANTE 20.	sa Fide.
8 Astelehen.	sa Brijita.
9 Asteharte.	s. Denis.
10 Astizken.	s. Franzes Borj.
11 Ostegun.	s. Sabin.
12 Ostirale.	sa Domnina.
13 Neskanegun.	s. Edouart.
14 IGANTE 21.	s. Kalista.
15 Astelehen.	s. Teresa.
16 Asteharte.	s. Bertran.
17 Astizken.	s. Edvije.
18 Ostegun.	s. Luk Ebanj.
19 Ostirale.	s. Grat, Olor.
20 Neskanegun.	s. Johane Kenti.
21 IGANTE 22.	sa Ursula.
22 Astelehen.	s. Pierra Alk.
23 Asteharte.	s. Leotade.
24 Astizken.	s. Rafael, ark.
25 Ostegun.	s. Krispin.
26 Ostirale.	s. Evarista.
27 Neskanegun.	sa Sabina.
28 IGANTE 23.	s. SIMOUN, Ap.
29 Astelehen.	sa Eusebia.
30 Asteharte.	s. Kazien.
31 Astizken.	s. Zir. Barour.



AZAROUA

Egunak llaburtzen dira oren 13.




- a. b. 4ⁿ, goizeko 12 min.
- Ⓜ l. l. 10ⁿ, aratseko 4^{or} eta 25 min.
- Ⓢ a. b. 18ⁿ, aratseko 3^{or} eta 25 min.
- Ⓢ a. l. 26ⁿ, aratseko 5^{or} eta 30 min.

ABENTIA edo NEGILA

Eg llaburtzen dira 27 min., 22^{no}.



- a. b. 3ⁿ, goizeko 10^{or} eta 15 min.
- Ⓜ l. l. 10ⁿ, goizeko 6^{or} eta 55 min.
- Ⓢ a. b. 18ⁿ, goizeko 10^{or} eta 50 min.
- Ⓢ a. l. 26ⁿ, goizeko 6^{or} eta 9 min.



- | | |
|----------------|-------------------------|
| 1 Ostegun. | DONISANTORE. |
| 2 Ostirale. | <i>Purg. Arimak.</i> |
| 3 Neskanegun. | s. Sever. |
| 4 IGANTE 24. | s. <i>Charles Borr.</i> |
| 5 Astelehen. | s. Zakaria. |
| 6 Asteharte. | s. Leonart. |
| 7 Astizken. | s. Florent. |
| 8 Ostegun. | 4 Khoroatiak. |
| 9 Ostirale. | s. Theodore. |
| 10 Neskanegun. | s. Andreu. Av. |
| 11 IGANTE 25. | J. MART., E. S. |
| 12 Astelehen. | s. Marti. |
| 13 Asteharte. | s. Stanizlaz K. |
| 14 Astizken. | s. Josafat. |
| 15 Ostegun. | s. Jertruda. |
| 16 Ostirale. | s. Edmon. |
| 17 Neskanegun. | s. Gregori, Taum. |
| 18 IGANTE 26. | s. Odon. |
| 19 Astelehen. | sa Elisabet, Hgr. |
| 20 Asteharte. | s. Felis Valesi. |
| 21 Astizken. | A. B. PRESENTIA |
| 22 Ostegun. | sa Zezila. |
| 23 Ostirale. | s. Klement. |
| 24 Neskanegun. | J. Johane Kh. |
| 25 IGANTE 27. | sa <i>Kat. lina.</i> |
| 26 Astelehen. | s. Pierra Al. |
| 27 Asteharte. | s. Virjile. |
| 28 Astizken. | s. Sostena. |
| 29 Ostegun. | s. Saturnin. |
| 30 Ostirale. | s. ANDREU. A. |

- | | |
|------------------|--------------------------------|
| 1 Neskanegun. | s. Eloi. |
| 2 IGANTE. | ABENTUKO 1 ^a . |
| 3 Astelehen. | s. <i>Franzes Xav.</i> |
| 4 Asteharte. | sa Barbara. |
| 5 Astizken. | s. Sabas. |
| 6 Ostegun. | s. Nikolas. |
| 7 Ostirale. | s. Ambrosi. |
| 8 Neskanegun. | A. B. KONZEPZ. |
| 9 IGANTE. | <i>Abentuko 2^a.</i> |
| 10 Astelehen. | sa Eulalia. |
| 11 Asteharte. | s. Daniel. |
| 12 Astizken. | s. Melkiade. |
| 13 Ostegun. | sa Luzia. |
| 14 Ostirale. | s. Paule Khur. |
| 15 Neskanegun. | sa Kristina, N. |
| 16 IGANTE. | <i>Abentuko 3^a.</i> |
| 17 Astelehen. | s. Lazaro. |
| 18 Asteharte. | s. Gazien. |
| 19 Astizken. | s. Urb. IV Th. |
| 20 Ostegun. | sa Julia. |
| 21 Ostir. IV Th. | s. TOMAS, Ap. |
| 22 Neskanegun. | s. Fl. IV Th. |
| 23 IGANTE. | <i>Abentuko 4^a.</i> |
| 24 Astelehen. | sa Delf. Barour. |
| 25 Asteharte. | EGUBERRI. |
| 26 Astizken. | J. EZTEBE, m. |
| 27 Ostegun. | J. JOHANE, Eb. |
| 28 Ostirale. | <i>Hlaour Inox.</i> |
| 29 Neskanegun. | s. Tomas, Kant. |
| 30 IGANTE. | s. Sabin. |
| 31 Astelehen. | s. Silvestre. |



BEGITHARTE HORIEK :

- Ⓢ *erran nahi du* : Estiapen hastia *edo* argizagi bethe.
Ⓢ " Argizagi azken laourdena.
Ⓢ " Gorapen hastia *edo* argizagi berri.
Ⓢ " Argizagi lehen laourdena.



GARAN ourtheko Almanaka burutən jouan delakoz esparantcha dugu aourthenkouak ere hounki jin dukiala. Goure frankoki mintzatziak zaourthuche tu goure departamentuko kaseta gorriak. Noun horak mina, han mihia, errana den bezala. Goure kountre egin die artikulu luze bedera : gaichto izan nahiz, zoro baratu dira, eta ezgira besteagorik arankuratu.

Eztzeien aski goure almanakari oldartzia bere kasetetan. Izentatzen ahal nukian herribatian, bere eskolaz okupatu ordutan, erejent batek, etchez etche persegitu du furian, mehatchia ahouan. Azkenekotz emanerazten zian Almanak izigarria eta mouzinkatzen edo suialat egochten. Eztakit balentria gaitz horen burutzeko galthatu ere dianez jandarmeriaren lagungoua.

Biziki kountsellatzen tugu Almanakaren erostunak. aourthen berritzen badu ber sentheria jaountto horek, kanpouan ezar dezazien, mehatchatzen duzielarik, buhurtzen bada, eskalanpou muthurra zalhekitto ezarriko deroziela nahi eztian lekhian. Phentsatzen dugu batzarri horek ematuko dila laster haren suia.

Inkhazgina naoussi eta libre da bere chilouan, milatan gehiago laborari etheko jaouna bere etchian.



HANITCH KHASU ABIS HOUNI :

AOURTHENDANIK, almanaka eginik izanen da bi kaier ez algarreki jossirik. Lehena, mehe mehia, hamabihilabeteren egunaria dateke eta ourthiaren urhentzian berhezi behar duke, nahidenaren egiteko. Bigerren kaiera edo phartia, mintzo datekiana istoriaz, abis hounez laboraria-
rentako, erezetaz, etc., harek berak ourthe oroz behar duke begiratu arankurareki. Pajiak markaturik dutuke bost ourthez arround. Bost ourthe-tako kaier begiratiak, 1892^{ian} algarreki josten ahal diateke liburu gocho eta balious baten egiteko. Bost ourthe horietan eman artikulien eta erezetan edirengia inprima eraziko dugu 1892^{eko} almanakaren urhentzian.

(Begiratzeko kaiera tchipiaren barnen, egunariaren barnen date ; arren aski dukezie lehen bi hollen urratzia ourthiaren burian ; ber denboran azken biak urraturik izanen dira. Halaz eztukezie ez kaier desegiterik, ez josterik, eta esta algia kountserbatuko duzie.)



MERKHATIAK ETA FEIRAK

MAULEN : **m.**, asteharte oroz ; **f.**, burullaren 6ⁿ. — ATHAR-RATZEN : **m.**, astelehenez, amoustetik ; **f.**, Phentekoste biharamenian *eta* Donisantore odonko astelehenian. — DONA JOANE GARAZIN : **m.**, asteleh. amoust. ; **f.**, Bazko *eta* Phentekoste ondoko astehartian. — DONA PALEUN : **m.**, ostir., amoust. ; **f.**, Bazko ondoko ostegunian, *eta* abentiaren 26ⁿ. — GARROZEN : **m.**, ostir., amoust. ; **f.**, agorrila 1ⁿ *eta* azaroko lohen astizkenian. — IRISSARIN : **m.**, neskaneg. amoust. ; **f.**, baranthall. 3ⁿ *eta* aphiril. 15ⁿ. — HAZPARNEN : **m.**, astehartez ; **f.**, Bazko ondoko astizkenian. — IZOURAN : **m.**, asteh. amoust. — NAVARENKOSEN : **m.**, astizk. ; **f.**, Erramu aitzineko astizkⁿ, *eta* abentⁿ 8ⁿ. — ORTHEZEN : **m.**, asteh. ; **f.**, martchoko *eta* urietako lehen astehⁿ. — OLOROEN : **m.**, ostit. *eta* asteh. ; **f.**, maiatz 1ⁿ, *eta* burullⁿ. 8ⁿ, hirour eg. — PAUBEN : **m.**, astel. *eta* osteg. ; **f.**, Gorozum. lehen astelehⁿ, *eta* Joundane Martinez, 8 eg. — SALIESEN : **m.**, ostegunez ; **f.**, baranth. heren astizkⁿ *eta* urrietaren asken ostegunian.

Abisbat

Oharterazten, ag^o 1886^{eko} setemer lehenian emanik izan den areste in arabera, goure departamentian izanen direla 18, ouhourezko primen konkoursak, laborantel handi arteko *eta* tchipiarentako, ala izan dadin k n hourtatziatz, ala baratzez, ala zuhañez chako jornaletor *eta* miskandiez. Gizoun t balio.

Edirengia

- I. Uskaldunak 1
- II. Botzkaz
- III. Bi khountu zahar.....
- 1^a Erkula gaskoubat
- 2^a Zounbat zankho dien Khurlouek
- IV. Dugun hortarik abokatubat..... 10.
- V. Jaoun Jujiaren aitzinian.....
- VI. Eskoletzaz.....
- VII. Erezeta.....
- 1^{ik} Aihen ostouaren eritarzunaz eta sendotzeko eremediouez.
- 2^{ik} Mahats graspatik egiten den ardoua.
- 3^{ik} Toumataren eta lur sagarraren eritarzunaz.
- 4^{ik} Beste eremediobat mildiouaren kountre.
- 5^{ik} Kukien galeraztia graneretaryk. . . 27
- VIII. 1887^{eko} Erekolta.....
- IX. Urhentzeko istoria edo erassi zounbait..